



Aldi baterako bidaiako laguntza-asegurua / Baldintza Orokorrak
EA / 2017

Poliza honen xede diren bermeetako edozein eskuratzeko eskubidea izateko, Aseguratua **EUROP ASSISTANCE**ekin harremanetan jarri behar da, 902.181.406 telefonora deituz edo 91.514.37.42 faxa erabiliz, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.

KONTRATATUTAKO MODALITATEAREN ARABERA, POLIZAREN BALDINTZA PARTIKULARRETAN ZEHAZTUKO DIRA ASEGURUAREN IRAUPENA, ESTALDURAREN LURRALDE-EREMUA, AUKERATUTAKO MODALITATEA ETA BERMEAK ETA ESKLUSIOAK

EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS

Orense kalea 4 - 28020 Madril

Madrilgo Merkataritza Erregistroa, 35.694 orria, 80 folioa, 4.526 liburukia - IFZ: A-28461994

1. BIDAIAKO LAGUNTZA-ASEGURUA

Aseguru-poliza hau indarreko legeriak eta Baldintza Orokor hauek arautzen dute, bai eta polizaren Baldintza Berezi eta Partikularrek ere. Guztiek batera osatzen dute aseguruaren oinarria, eta horietan zehaztutako arriskuak soilik estaliko ditu.

2. KONTRATAZIO-MODALITATEAK ETA BERMEAK

Bidaiaiko laguntza-aseguruaren modalitate hauek kontrata daitezke, bakoitza helburu jakin batzuekin:

Aldi baterako estaldurak
<i>Fun</i> modalitatea
<i>Total Fun</i> modalitatea
<i>Receptivo Schengen</i> modalitatea
<i>Esencial</i> modalitatea
<i>MissYou</i> modalitatea (<i>sei hilabeteko estaldura, 183 eguneko egonaldietarako</i>)

Aukeratutako modalitateak Aseguruaren Baldintza Partikularretan agertuko dira, Aseguratuen zerrenda eta estaldura-aldiarekin batera.

3. DEFINIZIO ARRUNTAK

ISTRIPUA

Poliza indarrean dagoen bitartean gorputzean jasandako mina edo gauzetan jasandako kaltea, Aseguratuaren nahitasunik gabe bat-batean gertatu den kanpoko arrazoi bortitz baten ondoriozkoa.

BIDAIDEA

Aseguratua ez den beste pertsona bat, bidaia-kontratu berean inskribatuta dagoena. Gerta daiteke aseguratuta ez egotea, berariaz aseguratuta dagoela adierazi ezean.

ASEGURATUA

Ohiko bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa, Baldintza Partikularretan izendatzen dena eta aseguratutako interesaren titularra dena. Aseguratuak bere gain hartzen ditu polizatik eratorritako betebeharrak.

Receptivo Schengen modalitatean, ohiko bizilekua **munduko edozein lekutan** (Espainian izan ezik) duen pertsona fisikoa da Aseguratua, Baldintza Partikularretan izendatzen dena eta aseguratutako interesaren titularra dena. Bere gain hartzen ditu polizatik eratorritako betebeharrak.

ASEGURATZAILEA

EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS da. Sozietateak bere gain hartzen du polizan zehazten den arriskua.

OHIKO BIZILEKUA

Aseguratuak Espainian duen bizilekua, polizan agertzen dena, jotzen da ohiko bizilekutzat; Aseguratua bertatik abiatzen da poliza honetan estalitako desplazamenduak egitera.

Receptivo Schengen modalitateko polizan agertzen den estatuko helbidea joko da ohiko bizilekutzat, Aseguratua bertatik abiatzen bada aldi baterako desplazamendua egitera, Schengengo Hitzarmenari atxikitako estaturen batera edo Mediterraneo itsasoaren ertzean dauden estatuetako batera.

GAIXOTASUN LARRIA

Nahitaz ospitaleratzea eskatzen duen osasun-arazo baten ondorioz, Aseguratuak bidaia hasterik edo aurreikusitako datan jarraitzerik ez izatea, edo **heriotza-arriskua egotea**.

GERORA SORTUTAKO GAIXOTASUNA

Polizak estaltzen duen bidaia batean pertsona baten osasun-egoerak okerrera egitea eta ondorioz laguntza fakultatiboa behar izatea, baldin eta diagnostikoa legez onartutako sendagile edo odontologo batek egin badu.

EKIPAJEA

Bidaian erabiltzeko eta higiene pertsonala zaintzeko arropa eta gauza propioen multzoa, maleten barruan eramaten dena.

ATZERRIA

Bermeen ondorioetarako, Aseguratuaren ohiko bizilekuaren estatuaz bestelako guztiak jotzen dira atzerriko estatutzat.

ESTALITAKO SENIDE ZUZENA

Aseguratuaren ezkontidea edo erregistro ofizialean egoki inskribatutako izatezko bikotekidea, gurasoak, aita-amaginarrebak, seme-alabak eta neba-arrebak.

EBASKETA

Inoren ondasun higigarriak ostea, pertsonen aurkako indarkeriarik edo larderiarik erabili gabe eta gauzen gaineko bortxarrik erabili gabe.

BERMATUTAKO MUGAK

Poliza honen bermeetako bakoitzean gehienezko mugatzat agertzen diren zenbatekoak Baldintza Berezetan jasotako indarraldi osoan gehienez meta daitezkeen zenbatekoak direla jotzen da, aukeratutako kontratu-modalitatearen arabera, berariaz beste gauza bat zehazten ez bada.

POLIZA

Aseguru arautzen duten baldintzak biltzen dituen kontratu-agiria. Bertan sartzen dira Baldintza Orokorrak eta arriskua individualizatzen duten Baldintza Partikularrak eta Baldintza Bereziak, bai eta poliza osatzeko edo aldatzeko gehi litezkeen eranskinak edo gehigarriak ere.

PRIMA

Aseguruaren prezioa da. Ordainagirian jasoko dira, gainera, legez ezarri beharreko errekarquak eta zergak.

LAPURRETA

Inoren ondasun higigarriak ostea, pertsonen aurkako indarkeria edo larderia edo gauzen gaineko bortxa erabiliz.

EZBEHARRA

Aseguratuaren nahitasunik gabe bat-batean gertatu den ustekabeko gertaera. Poliza honen bermeek haren ondorio kaltegarriak estaltzen dituzte. Arrazoi bakar baten ondorioz eratoritzen diren kalte guztiak ezbehar bakartzat joko dira.

ASEGURU-HARTZAILEA

Aseguratzaillearekin batera poliza sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa da. Berari dagokio polizaren ondoriozko betebeharrak betetzea, izaera dela-eta Aseguratuak bete beharrekoak izan ezik.

BIDAIA

Bidaiatzat hartuko dira Aseguratuak ohiko bizilekutik kanpora egiten dituen desplazamendu guztiak, helbidetik irteten den unetik hasi eta, desplazamendua amaitu ondoren, bertara itzultzen den arte.

4. ASEGURUAREN XEDEA

Polizaren arabera estalita dauden arriskuen ondorioetatik babestea, baldin eta ohiko bizilekutik kanporako **bidaian zehar** izandako ustekabeko gertaera baten ondorioz eta kontratuaren arabera estalitako lurralde-eremuan, modalitatean eta epealdian gertatzen badira, eta betiere kontratuan bertan zehaztutako muga ekonomikoen baitan. Horrekin batera, hitzartutako modalitatean zehaztutako zerbitzuak ematea. Polizaren

bermeek ez dute eraginik izango bidaia amaitu eta aseguru-hartzailea nahiz gainerako aseguratu guztiak ohiko etxebizitzara iritsitakoan.

5. PRIMAREN GAINEKO ERREKARGUAK ETA ESTALDURAREN MUGA

75 urtetik gorakoek primaren gaineko % 100eko errekargua izango dute *Fun, Total Fun, Esencial* eta *Receptivo Schengen* modalitateetan.

75 urtetik gorakoentzat ez da onartuko *MissYou* modalitatea kontratatzerik.

Istripu-aseguruaren prestazioek 14 eta 70 urte bitarteko pertsonak baino ez dituzte estaltzen.

Neguko kirolak *MissYou* modalitatean baino ez dira estaliko. 70 urtetik gora, ez da onartuko *Receptivo Schengen* modalitatea kontratatzerik.

6. ASEGURUAREN HASIERA ETA IRAUPENA

Baldintza Partikularretan **bidaiak hasteko eguntzat** zehaztutako datan sartuko da indarrean aseguru-kontratua, **betiere poliza onartuta/sinatuta eta prima ordainduta badago. Poliza kontratatzean zehazten den egunean sartuko da indarrean estaldura, nahiz eta egun hori bidaiak hasi eta geroagokoa izan.**

Bidaian abiatu ondoren ere kontrata daiteke poliza, baina ez du inoiz atzeraeraginik izango.

«*Abiatu ez den bidaiak ezeztatzeagatik gastuetarako bermea*» kontratatu eta 72 ordu geroago sartuko da indarrean. Alegia, aseguruaren kontratazioaren eta bidaiak bertan behera uztea eragin duen gertaeraren artean 72 ordu igaro behar dira, gutxienez.

Poliza indarrean sartu aurretik ezerezteko aukera egongo da. Aseguruaren aldia hasi eta gero, prima ez da inolaz ere itzuliko. Baldintza Partikularretan zehaztuko da kontratuaren iraunaldia.

***Receptivo Schengen* modalitatearen iraunaldia ezin da 120 egunetik gorakoa izan.**

7. LURRALDE-EREMUA: ESTALITAKO LURRALDEAK

Espainia, Europa, Schengen eremua: aseguruak kontratatzeko unean Schengen eremuari atxikita dauden estatuak.

Mediterraneo itsasoaren ertzeko estatuak: Espainia, Maroko, Tunez, Algeria, Egipto, Israel, Libano, Libia, Siria.

Mundua

Lurralde-eremuaren aukerak, modalitatearen arabera:

<i>Fun</i> modalitatea	Espainia	Europa	Mundua	
<i>Total Fun</i> modalitatea		Europa	Mundua	
<i>Receptivo Schengen</i> modalitatea	Espainia		Schengen	Mediterraneo ertzeko estatuak
<i>Esencial</i> modalitatea		Europa	Mundua	
<i>Missyou</i> modalitatea		Europa	Mundua	

Poliza honetan aseguraturako bermeek Baldintza Partikularretan zehaztutako lurralde-eremuan izango dute balioa, kontratuan eta zerbitzuaren edo prestazioaren definizioan bertan jasotako kilometro-frankizian izan ezik.

Ez da laguntza bermatuko polizan jasotako lurralde-eremua izan arren, desplazamenduak dirauen bitartean estatu hori gerran, matxinada-egoeran edo edozein motatako gerra-gatazkan badago, nahiz eta gatazka-egoera ofizialki aitortuta egon ez. Halakoetan, EUROP ASSISTANCEk jatorrizko faktura egiaztagarriaren bidez egoki justifikatutako gastu estaliak baizik ez ditu ordainduko.

8. KILOMETRO-FRANKIZIA

Aseguratuen ohiko bizilekutik abiatuta, 35 kilometrotik aurrera hartuko du balioa polizaren estaldurak (15 kilometrotik aurrera Balearretan eta Kanarietan).

9. PRIMAREN ORDAINKETA

Aseguru-hartzaileak poliza formalizatzen duenean ordaindu beharko du aseguruaren prima. Ezbeharrak gertatu den unean prima oraindik ordaindu gabe badago, **EUROP ASSISTANCE** bere betebeharretatik libre geldituko da.

Prima ordaintzen ez bada, estalduraren eraginak ez dira abian jarriko eta Asegurutzaleak poliza bertan behera utzi edota hitzartutako prima ordaintzeko eskatu ahal izango du. Alabaina, aurreko paragrafoetan jasotakoaren arabera oraindik poliza ezeztatu gabe badago edo bertan behera gelditu ez bada, aseguru-hartzaileak prima ordaindu eta hogeita lau ordu geroago berriro indarrean hasiko da.

10. EZBEHARRETAN EGIN BEHARREKOAK

Polizan estalitako bermeetako bat gauzatzea eragin lezakeen gertaerarik jazoko balitz, ezinbestekoa da berehala ematea ezbeharraren berri, Baldintza Partikularretan agertzen den telefonoan edo ezbeharrak jakinarazi dela frogatzen duen beste edozein bide erabiliz. Oro har, berariaz bermetik kanpo daude aurretiaz EUROP ASSISTANCEri jakinarazi ez zaizkion prestazioak, bai eta prestazioa gauzatzeko baimenik jaso ez dutenak ere.

Ezbeharrak jakinaraztea galarazi duen ezinbesteko arrazoiren bat badago, arrazoi hori bukatu eta berehala jakinarazi beharko da.

Harremanetan jartzen denean, Aseguratuak hauxe zehaztu beharko du: **poliza-zenbakia, izen-abizenak, non dagoen eta harremanetarako telefonoa**. Gainera, zer ezbehar gertatu den eta nolako laguntza behar duen ere azaldu beharko du.

Jakinarazpena jaso eta gero, eskatutako zerbitzua emateko egin beharrekoak zehaztuko ditu **EUROP ASSISTANCE**ek. Aseguratuak EUROP ASSISTANCEk emandako argibideen kontra jokatzeko badu, **bere bizkar geratuko dira ez-betetze horren ondorioz egiten dituen gastuak**.

Ezbeharrak gertatu eta 7 egun igaro aurretik eman behar dio Aseguratuak EUROP ASSISTANCEri horren berri.

Bidaia bertan behera uzten bada, Aseguratuak bidaiaren hornitzaileari jakinarazi behar dio lehenik eta behin, ezeztapena gauza dezan.

EDOZEIN GASTU ITZULTZEA ESKATZEKO, WWW.EUROP-ASSISTANCE.ES WEBGUNERA JO DEZAKE ASEGURATUAK, BERTAN «ONLINE ITZULTZEA» EREMUAN SARTU, ITZULTZE-ESKAERA EGIN ETA TRAMITEAREN JARRAIPENA GAUZATZEKO. BESTE AUKERA BAT ERE BADAUKA: MADRILGO 36316 POSTA-KUTXARA JOTZEA. DENA DELA, EZINBESTEKOA IZANGO DA JATORRIZKO FAKTURAK ETA EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA.

EUROP ASSISTANCEek Espainiako legeek agindutakoaren arabera gauzatuko ditu diru-itzulketak; zehazki, eskudirutan egindako ordainketei buruzko eta kapitala nazio-lurraldetik ateratzeari buruzko legerian xedatutakoaren arabera. Hala, Aseguratuak eskudirutan eta Espainiatik kanpo ordaindu dituen eta estalita dauden kontingentzien kostuei dagokienez, **EUROP ASSISTANCE**ek gehienez 10.000 euroko zenbatekoa edo pareko balioa ordainduko du atzerriko dirutan, diru hori Espainiatik kanpora atera dela ziurtatzen duen banku-egiaztagiria aurkezten bada edota Kapitala Zuritzeari Aurrea Hartzeko 10/2010 Legearen 34. artikuluaaren arabera aitortu bada.

11. ASEGURATUAK KEXA ADIERAZTEKO EGIN BEHARREKO TRAMITEAK

EUROP ASSISTANCEek erreklamazio-zerbitzua du aseguratuen esku: www.europ-assistance.es webgunean ikus daiteke haren erregelamendua. Aseguru-hartzaileek, aseguratuek, onuradunek, kaltetutako hirugarrenek edo aurreko edozeinen kausadunek aurkez ditzakete kexak webgunearen «Bezeroaren defentsa» atalean edota erreklamazio-zerbitzuari idatziz:

Helbidea: Erreklamazio Zerbitzua
Orense kalea 4, 14. solairua
28020 MADRIL

Zerbitzuak funtzionamendu autonomoa du eta gehienez 2 hilabeteko epean ebatziko ditu zuzenean helarazten zaizkion idatzizko kexak, martxoaren 11ko ECO/734/2004 Agindua eta azaroaren 22ko 44/2002 Legea betez.

Erreklamazio-zerbitzuaren bidea agortu ondoren, erreklamazio-egileak Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erreklamazio-zerbitzura jotzeko aukera izango du. Helbidea:

La Castellana pasealekua 44
28046 MADRIL

12. POLIZAN DAUDEN DATUAK JAKINARAZTEA

Polizan ageri diren datuak aldatuz gero, aseguru-hartzaileak **EUROP ASSISTANCE**ri horren berri eman beharko dio, idatziz, gertatu eta 24 ordu igaro baino lehen. Betebehar hori bete ezean, **EUROP ASSISTANCE**ek aseguratutako bermeak baliogabetzeko eskubidea izango du.

13. SUBROGAZIOA

EUROP ASSISTANCEek subrogatu egiten du Aseguratuak jasan eta konpainiaren esku-hartzea eragin duen gertaeraren erantzuleen aurka gauza daitezkeen eskubideen eta akzioen kostua, berak emandako zerbitzuen zenbatekoa bete arte. Poliza hau burutuz gauzatu diren bermeak, osorik edo zati bat, beste aseguru-konpainia batek edo beste edozein pertsonak edo erakundek estaltzen baditu, Aseguratuak konpainia edo erakunde horren aurrean dituen eskubide eta ekintzak subrogatuko ditu **EUROP ASSISTANCE**ek. Ondorio horretarako, Aseguratuak **EUROP ASSISTANCE**ri aktiboki laguntzeko konpromisoa hartzen du. Hala, sozietateak beharrezkotzat jotzen duen edozein laguntza edo agiri emango dio.

Dena den, Aseguratuaren itzulerako gastuak **EUROP ASSISTANCE**ek ordaindu baditu, azken horrek eskubidea izango du garraio-titulua (treneko, hegazkineko... txartela) erabiltzeko edo Aseguratuari eskatzeko.

14. ERANTZUKIZUNA

Ezbeharrak gertatzen bada, **EUROP ASSISTANCE**ek ez du erantzukizunik onartuko, baldin eta sozietateak berak edo bere zerbitzu teknikoak emandako jarraibideen kontrako erabakiak edo jarduketak burutzen baditu Aseguratuak.

15. LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Aseguratuak eta **EUROP ASSISTANCE** Espainiako legeriaren eta jurisdikzioaren esanetara egongo dira poliza honen ondorioetarako.

Aseguratuaren ohiko bizilekuko epailea izango da polizatik eratorritako ekintzak ebazteko eskuduna.

ESTALITAKO BERMEAK

1. Osasun-gastuak.

Bidaia hasi ondoren, gerora sortutako gaixotasuna edo ustekabeko istripua jasaten badu Aseguratuak, **EUROP ASSISTANCE**ek honako gastu hauek bermatuko ditu Aseguratu bakoitzarentzat, polizak indarrean dirauen bitartean eta **kontratutako modalitatearen arabera dagokion muga ekonomikoraino**:

- Sendagilearen ordainsariak.
- Eman dioten lehen osasun-laguntzan sendagileak edo zirujauak agindutako medikamenduak. Estaldura honetatik kanpo daude hasieran emandako tratamendua denboran luzatzen delako sortzen diren medikamendu-gastuak edo farmazia-gastuak, bai eta kroniko bihurtzen den edozein prozesuk sortzen dituenak ere.
- Ospitaleratze-gastuak.
- Sendagileak agindutako tokiko lekualdaketa bat egiteko anbulantzia-gastuak.

Atzerrian eta Espainian bermatutako zenbatekoak ez dira elkarren artean gehitzekoak.

EUROP ASSISTANCEek parte-hartze zuzenik izan ez badu eta beste inork egindako gastuak ordaindu behar baditu, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko zaizkio, osasun-txosten osoarekin batera (aurrekariak, diagnostikoa eta tratamendua), gaixotasuna gerora sortutakoa dela egiaztatzeko.

Aseguratuak indarrean duen pasaportean ageri den estatura bidaiatzen duenean, Espainian egindako bidaia baterako polizan deskribatutako berme berdinak jasoko ditu.

Espainian egindako osasun-gastuetatik kanpo geldituko dira Aseguratuak Gizarte Segurantzaren onuradun gisa ordainduta dituenak. Salbuetsita daude, ordea, larrialdia dela-eta Aseguratuak Gizarte Segurantzakoa ez den ospitale batera eraman dutelako sortutako gastuak.

Dena dela, Gizarte Segurantzaren prestazioen ondorioz edota edozein aurreikuspen-erregimen edo aseguru pribatutara harpidetuta dagoelako, Aseguratuak ezbeharrarengatik dirua jasotzeko eskubidea badu, EUROP ASSISTANCEk subrogatu egingo ditu berak egindako gastu guztiak.

Receptivo Schengen modalitatean, ezbehar bakoitzeko 100 euroko frankizia egotziko zaio Aseguratuari.

2. Odontologia-gastuak.

«Osasun-gastuen» bermea gauzatzen denean, eta **bertan zehaztutako mugaren baitan**, premiazkotzat jotzen diren odontologia-gastuak estalita egongo dira, **baina ez endodontziak, aurreko tratamenduei dagozkien berrosatze estetikoak, protesiak, zorroak eta inplanteak, betiere kontratatutako modalitateari dagokion muga ekonomikoaren baitan.**

3. Gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz hoteleko egonaldia luzatzea.

Gerora sortutako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz Aseguratuak ezin badu bidaiari jarraitu baina ez badu erietxeratu edo ospitaleratu beharrik, **EUROP ASSISTANCE**ek hoteleko egonaldia luzatzearen ondoriozko gastuak ordainduko ditu, sendagileak horixe agintzen badu, **betiere kontratatutako modalitatearen muga ekonomikoaren baitan** eta 10 egunez gehienez ere.

4. Gaixoen eta zaurituen lekualdatze sanitarioa.

Poliza indarrean dagoen bitartean eta ohiko bizilekutik kanporako desplazamendu batean Aseguratuak gerora sortutako gaixotasuna edo istripua jasaten badu, eta ondorioz bidaia jarraitzerik ez badu, **EUROP ASSISTANCE**ek, horren berri izan bezain laster, bere osasun-zerbitzuaren eta Aseguratuak zaintzen duten sendagileen artean behar diren harremanak antolatuko ditu.

EUROP ASSISTANCEren osasun-zerbitzuak Aseguratuaren ohiko bizilekutik hurbil (Espainian edota **Receptivo Schengen** modalitateko polizan agertzen den estatuan) eta hobeto hornituta edo espezializatuta

dagoen ospitale batera lekualdatzea baimentzen badu, **EUROP ASSISTANCE** honela burutuko du lekualdaketa hori, gaixoaren edo zaurituaren larritasunaren arabera:

- Hegazkin sanitario berezian.
- Trenean, lehen mailan.
- Helikoptero sanitarioan.
- Anbulantzian.
- Linea erregularreko hegazkinean.

Hegazkin sanitario berezia Europan eta Mediterraneo ertzeko estatuetan soilik erabiliko da.

Asegurua lekualdatzeko garraioidea eta ospitaleratzeko lekua aukeratzeko, osasun-alorreko eskakizunak baino ez dira kontuan hartuko.

Aseguratuak EUROP ASSISTANCEren osasun-zerbitzuak agindutako momentuan eta baldintzetan garraiatzeari uko eginez gero, erabaki horren ondoriozko berme eta gastu guztiak bertan behera geldituko dira.

Aberriratzeko ondorioetarako, polizaren kontratuan ageri dena joko da ohiko bizilekutat.

5. Aseguratu laguntzaileen aurretiko itzulera.

Aseguratuak gerora sortutako gaixotasuna edo istripua jasan duelako «Gaixoen edo zaurituen lekualdatze sanitarioa» prestazioa ezarri bazaio, edota hil egin bada, eta horren ondorioz gainerako Aseguratuak ez badute euren ohiko bizilekuetara hasieran pentsatu bezala itzultzeko aukerarik, **EUROP ASSISTANCE** hartuko ditu bere gain ohiko bizilekura edo Aseguratu dagoen ospitalera joateko garraio-gastuak, dela linea erregularreko hegazkinean (turista-mailan), dela trenean (lehen mailan).

6. Laguntzailea itzultzea eta gerora bidaia-planera berriro joatea.

«Gaixoen edo zaurituen lekualdatze-sanitarioa» ezarri edo Aseguratu hil bada, poliza berean dagoen edo **EUROP ASSISTANCE**rekin kontratu zuzena duen beste Aseguratu batek lehenengo Aseguratu ospitaleratu duten edo hilobiratuko duten lekura doan joateko eskubidea izango du, berak hala eskatuz gero.

EUROP ASSISTANCE bere kargura hartuko du laguntzailea hasieran zegoen bidaia-planera itzultzeko garraio-gastua, dela trenean (lehen mailan) dela linea erregularreko hegazkinean (turista-mailan), betiere polizak indarrean jarraitzen badu eta bi desplazamenduen arteko denbora-tartea ez bada zazpi egun baino luzeagoa.

7. Pertsona bat lekualdatzea, ospitaleratu duten Aseguratuari lagun egiteko.

Bidaian zehar Aseguratuak bost egun baino luzarago egon behar badu ospitalean eta ez badauka senide zuzenik alboan, **EUROP ASSISTANCE** bere kargu ordainduko du linea erregularreko joan-etorriko hegazkin-txartela (turista-mailakoa) edo tren-txartela (lehen mailakoa), laguntzaile bat Espainiako ohiko bizilekutik joan dadin haren ondora.

8. Pertsona batek ospitaleratu duten Aseguratuari lagun egiteko egonaldi-gastuak.

Bidaian zehar Aseguratuak bost egun baino luzarago egon behar badu ospitalean eta ez badauka senide zuzenik alboan, **EUROP ASSISTANCE** hoteleko egonaldiko gastuak ordainduko ditu, jatorrizko fakturak aurkeztu ondoren, **betiere kontratatutako modalitateari dagokion muga ekonomikoaren baitan** eta hamar egunez gehienez ere.

9. Ospitalean dagoen Aseguratuaren senideentzako laguntza ohiko bizilekuan.

Bidaian zehar gerora sortutako gaixotasuna edo istripua jasan duelako Aseguratuak ospitalean egon behar badu (eta polizaren bermeek hori estaltzen badute), eta horren ondorioz norbaitek Aseguratuaren ohiko bizilekuan egon behar badu, **EUROP ASSISTANCE** bere kargura hartuko du Espainian bizi den pertsona

Aseguratuaren ohiko bizilekura joateko eta handik itzultzeko gastua, linea erregularreko hegazkin batean (turista-mailan) edo trenean (lehen mailan). Bestela, konpainiak oniritzia eman eta jatorrizko egiaztagiria aurkeztu ondoren, bere gain hartuko du etxeko langile bat kontratatzeko gastua, baina betiere, batean nahiz bestean, **kontratutako modalitateari dagokion muga ekonomikoaren baitan.**

10. Aseguratua itzultzea, senide bat hil delako.

Poliza honek estalitako lekualdatze batean dagoen Aseguratuaren senide zuzen bat, polizan estalita dagoena, Espainian hilez gero, **EUROPE ASSISTANCE**ek, horren berri izan ondoren, hil eta zazpi egunera gehienez ere Espainian hileta edo hilobiratzea egingo den lekura joateko linea erregularreko hegazkin-txartel bat (turista klasekoa) edo tren-txartel bat (lehen mailakoa) helaraziko dio Aseguratuari.

11. Aseguratua itzultzea, senide bat ospitaleratu egin dutelako.

Poliza honek estalitako lekualdatze batean dagoen Aseguratuaren senide zuzen bat, polizan estalita dagoena, Espainian 5 egunetik gorako egonaldirako ospitaleratuz gero, **EUROPE ASSISTANCE**ek, horren berri izan ondoren, senidea ospitaleratuta dagoen lekura joateko linea erregularreko hegazkin-txartel bat (turista klasekoa) edo tren-txartel bat (lehen mailakoa) helaraziko dio Aseguratuari.

12. Aseguratuaren itzulera aurreratua, ohiko etxebizitzan ezbehar larria gertatu delako.

Bere ohiko bizilekuan ezbehar larria (sutea, lapurreta, uholdea) gertatu delako Aseguratuak bidaia eten egin behar badu, Espainiako bizilekurainoko joan-etorriko txartela helaraziko dio **EUROP ASSISTANCE**ek Aseguratuari. Desplazamendu hori linea erregularreko hegazkinean (turista-mailan) edo trenean (lehen mailan) egingo da.

13. Gorpuzkiak garraiatzea.

Poliza honek estalitako lekualdatze batean dagoen bitartean Aseguratua hiltzen bada, **EUROP ASSISTANCE**ek bere kargu antolatuko du gorpuzkiak ohiko bizilekuan hilobiratzeko lekurainoko garraioa (Espainiara edota *Schengen Receptivo* modalitateko polizan ageri den estatura), bai eta gorpuzkia baltsamatzeko, nahitaezko gutxieneko kutxa erosteko eta formalitate administratiboak egiteko gastuak ere. **Ez da inolaz ere estaliko hileta-zerbitzuen gastua eta lurperatzeko gastua.**

Aseguratuaren heriotzaren arrazoia edozein izanik ere ezarriko da bermea.

Ondorio horietarako, polizaren kontratuan ageri dena joko da ohiko bizilekutzat.

14. Adingabeei edo mendeko pertsonari laguntzea.

Aseguratuarekin batera mendeko pertsonak edo 14 urtetik beherako adingabeak (horiek ere Aseguratuak) badoaz bidaiari, poliza indarrean dagoen bitartean, gerora sortutako eta estalitako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz Aseguratuak haien kargu hartzerik ez badu, **EUROP ASSISTANCE**ek bere kargu hartu eta ordainduko du Aseguratuak edo haren familiak izendatutako pertsona bat edo **EUROP ASSISTANCE**ko laguntzaile bat Espainiatik eramateko joan-etorriko bidaia. Pertsona edo laguntzaile horrek adingabe edo mendekoekin batera bidaiatuko du Espainiako ohiko bizilekura itzuli arte. Ahalik eta azkarren itzultzea izango da helburua.

15. Dokumentuak eta objektu pertsonalak atzerrira bidaltzea.

Bidaiarako beharrezkoak izanik etxean ahaztuta utzi diren objektuen —lentillak, protesiak, betaurrekoak, kreditu-txartelak, gidabaimena, NANA eta pasaportea— bidalketa antolatu eta ordainduko du **EUROP ASSISTANCE**ek. Prestazio horrek barne hartzen du, halaber, bidaiari ahaztutako objektuak edo bidaiari lapurtu ondoren berreskuratutakoak ohiko bizilekura bidaltzea ere.

EUROP ASSISTANCEK 10 kilotik beherako paketeak bidaltzeko kostuak baino ez ditu hartuko bere gain.

16. Txartelak ezeztatzea, galdu egin direlako edo lapurtu egin dituztelako.

Aseguratuari galdu egin zaizkiolako edota ebatsi edo lapurtu egin dizkiotelako, Espainian hirugarren erakundeek jaulkitako banku-txartelak eta bankuetakoak ez direnak ahalik eta lasterren baliogabetzea da zerbitzuaren helburua.

Aseguratuak berak honako datu hauek eman behar ditu: NANA, txartel-mota eta erakunde jaulkitzailea.

Dena dela, ezinbestekoa izango da agintaritza eskudunen aurrean salaketa jartzea.

17. Atzerriko bidaian zehar pasaporte galdu edo lapurtzea.

Pasaporte berritzeko gestio-gastuak estalita egongo dira, baldin eta atzerriko bidaian edo egonaldian Aseguratuak galdu egin badu edo lapurtu egin badiote, eta gertaera behar bezala justifikatzen badu.

Estaldua honetatik kanpo daude eta, beraz, ez da kalte-ordainik ordainduko, pasaporte galtzearen edo lapurtzearen ondorioz edo hirugarren pertsonen bidegabe erabiltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteak.

18. Ekipajea bilatu eta aurkitzea.

Aseguratuaren ekipajea galdu edo atzeratu egin bada, **EUROP ASSISTANCEK** bilatzen eta aurkitzen lagunduko dio eta salaketa jartzeko gestioan aholkatuko du. Ekipajea aurkituz gero, **EUROP ASSISTANCEK** Aseguratuaren Espainiako ohiko bizilekura bidaliko du, gauzak berreskuratzeko jabeak nahitaez bertan egon behar ez badu, behintzat.

19. Ekipajea galtzea, kaltetzea edo lapurtzea.

Fakturatuak ekipajea bidaian zehar behin betiko galdu edo larri hondatzen bada garraio-enpresari egotz dakioken arrazoi baten ondorioz, **EUROP ASSISTANCEK** kalte-ordaina ziurtatzen du, **kontratatuak modalitatearen muga ekonomikoraino.**

Kalte-ordaina jasotzeko, ezinbestekoa izango da galera edo kaltea egiaztatzea; horretarako, garraio-enpresak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko du Aseguratuak.

Ekipajea lapurtuz gero, ezinbestekoa izango da tokian tokiko agintaritza eskudunaren aurrean jarritako salaketa aurkeztea, bai eta establezimendu publikoaren aurrean egin den erreklamazioa ere, baldin eta halakoetan gertatu bada.

Nolanahi ere, galdutako, lapurtutako edo kaltetutako objektuen zerrenda zehatza eta zenbatetsia eta **jatorrizko ontziratze-txartela** aurkeztu beharko dira.

Objektu baten osagaiak edo osagarriak ez dira bereizita ordainduko.

Ez dira estalduran sartzen ebasketa, galera, dirua, bitxiak, ekipamendu elektroniko eta digitalak, agiriak eta ibilgailu edo kanpadendetan dauden ekipaje eta objektu pertsonalen lapurretak, ez eta fakturatu gabeko ekipajeak ere.

20. Fakturatu gabeko ekipajea galtzea, lapurtzea edo kaltetzea.

EUROPE ASSISTANCEK kontratatutako modalitatearen mugarainoko kalte-ordaina bermatuko du.

Ekipajea lapurtuz gero, ezinbestekoa izango da tokian tokiko agintaritza eskudunaren aurrean jarritako salaketa aurkeztea, bai eta establezimendu publikoaren aurrean egin den erreklamazioa ere, baldin eta halakoetan gertatu bada.

Nolanahi ere, galdutako, lapurtutako edo kaltetutako objektuen zerrenda zehatza eta zenbatetsia aurkeztu beharko da.

Objektu baten osagaiak edo osagarriak ez dira bereizi ordainduko. Ez dira estalduran sartzen ebasketa, galera, dirua, bitxiak eta agiriak, ez eta ibilgailu edo kanpadendetako ekipajeen edo objektu pertsonalen lapurreta ere.

21. Ekipajea atzeratzea.

Garraiolariaren erruz fakturatutako ekipajea entregatzeko atzerapena badago, eta atzerapen hori 12 ordu baino luzeagoa bada edo tartean gau bat badago, ekipajea berreskuratu bitartean behar diren erabilera pertsonaleko artikuluak erosteko gastuak itzuli egingo dira, **kontratutako modalitateari dagokion mugaren baitan** betiere (jatorrizko fakturak, jatorrizko ontziratze-txartela eta garraio-enpresak emandako jatorrizko atzerapen-egiaztagiria aurkeztu beharko dira).

Azkenean ekipajea behin betiko galtzen bada, atzerapenagatik ordaindu den zenbatekoa kendu egingo zaio «Ekipajea galtzea, kaltetzea eta lapurtzea» prestazioagatik jaso beharreko zenbatekoari.

Ez da prestaziorik gauzatuko, baldin eta Aseguratuaren ohiko bizilekuaren probintzian bertan gertatu bada atzerapena edo probintzia horretan erosi baditu artikuluak.

22. Bidaia atzeratzea.

Zehaztutako ordutegiaren arabera aritzen diren garraio publikoetako bidaiaren hasiera 6 ordu baino gehiago atzeratu bada, atzerapena gertatu den lekuan egindako ezinbesteko gastu errealak itzuli egingo dira, jatorrizko fakturak eta garraio-enpresak emandako atzerapenaren jatorrizko egiaztagiria aurkeztu ondoren, **betiere kontratatutako modalitateari dagokion muga ekonomikoaren baitan.**

Prestazio horretatik kanpo geldituko dira erregularrak ez diren hegaldietan gertatutako atzerapenengatiko kalte-ordainak.

23. Garraibidea galtzea, «in itinere» gertaturiko istripu baten ondorioz.

EUROP ASSISTANCEk garraibidea galdu den lekuan egin diren ezinbesteko gastu errealak itzuliko dituela bermatzen du, **kontratutako modalitateari dagokion mugaraino**, baldin eta Aseguratuak kontratatutako garraibide kolektiboa abiatzekoa zen lekura (aireportura, portura, tren-geltokira edo autobus-geltokira) joateko erabili duen garraibide publikoak edo pribatuak bidean istripua izan badu.

24. Hegaldien konexioa galtzea.

Aseguratuarekin zerikusirik ez duten eta aire-konpainiari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz aurreikusitako hegaldien konexioa galtzen bada, eta Aseguratuak 6 ordu baino gehiago itxaron behar badu, konexioa galdu den lekuan egindako ezinbesteko gastu errealak itzuliko zaizkio, garraio-konpainiak emandako jatorrizko egiaztagiria eta jatorrizko fakturak aurkeztu ondoren eta **kontratutako modalitateari dagokion mugen baitan betiere.**

Prestazio horretatik kanpo geldituko dira erregularrak ez diren hegaldietan gertatutako atzerapenengatiko kalte-ordainak.

25. Aire-garraibidean «overbookinga» edo gainerreserba dagoelako bidaia atzeratzea.

Aire-garraiolariak hegazkinean benetan dauden lekuak baino gehiago kontratatu baditu (gainerreserba edo «overbookinga» egin badu) eta horren ondorioz irteera 6 ordu baino luzeago atzeratu bada, **EUROP ASSISTANCEk** premia biziko gastuak itzuliko ditu, jatorrizko fakturak aurkeztu ondoren eta **kontratutako modalitateari dagokion mugen baitan betiere.**

Prestazio horretatik kanpo geldituko dira erregularrak ez diren hegaldietan gertatutako atzerapenengatiko kalte-ordainak.

Zenbatekoa ez da izango, inolaz ere, hegaldiaren txartelaren prezioa baino handiagoa.

26. Loturak galdu direlako ordezeko garraibidea hartu behar izatea.

Hutsegite teknikoan, greba edo gatazka sozialen, hondamendi naturalen, ezohiko gertakari naturalen edo agintarien nahiz beste norbaiten indarrezko esku-hartzeen ondorioz, kontratatutako garraibide publikoa atzeratu bada, eta, beraz, Aseguratuak ez badu txartelean aurreikusita eta lotuta dagoen hurrengo garraibideraino heltzerik, **EUROP ASSISTANCE**ek jatorrira itzultzeko garraibidearen gastuak edo azken helmugara iristeko ordezeko garraibidearen gastuak ordainduko dizkio, **kontratutako modalitatearen mugen baitan betiere.**

27. Hasi gabeko bidaia bertan behera uzteak eragindako gastuak.

EUROP ASSISTANCEek **Baldintza Partikularretan zehaztutako mugaraino** ordainduko ditu, hornitzaileekiko salmenta-baldintza orokorren arabera, kontratatutako bidaia ezeztatzeagatik Aseguratuari fakturazten zaizkion gastuak (bidaia garraioa eta ostatua soilik hartzen dituela jotzen da, salbu eta fakturan banakatu ezin diren beste kontzeptu batzuk ageri badira). Abiatu aurretik ezeztatu beharko da bidaia, hornitzaileari horren berri eman ondoren.

Bermea ez da inoiz indarrean sartuko bidaia kontratatu aurretik, eta bidaia hasten den unean edo berez hasi beharko lukeen egunean amaituko da. **Polizaren kontrataziotik bidaia bertan behera uztea eragin duen gertaeraren bitartean gutxienez 72 ordu igaro badira soilik izango da baliagarria bermea.**

Bidaia ezeztatzeako arrazoiek, berme hau gauzatzeko arrazoizat erabiliko direnek, kontratatutako egunetan bidaia egitea galarazi behar dute, eta aseguru sinatu ondoren gertatuak izan. Honako hauetako bat izan daiteke:

- Aseguratua hiltzea.
- Aseguruak gorputz-istripua edo gaixotasun larria izatea eta, **EUROP ASSISTANCE**ren osasun-zerbitzuak egindako balorazioaren arabera, horren ondorioz ezin izatea aurreikusitako egunean bidaiara joan.
- Aseguratuaren senide zuzenen bat, polizan estalita dagoena, ospitaleratzea edo hiltzea.
- Aseguratuaren bizileku nagusian edo lokal profesionalean (Aseguratuak lanbide liberala badu edo enpresa zuzentzen badu) kalte larriak gertatzea suteagatik, leherketagatik, lapurretatik edo naturaren indarragatik eta ondorioz bertan ezinbestez geratu behar izatea.
- Aseguratua lanetik kaleratzea, diziplina-kontuengatik izan gabe, edota etxebizitza aldatzea eskatzen dion nahitaezko lan-aldaketa izatea.
- Aseguratua aurreko sei hilabeteetan kontratatuta egon ez den enpresa berri batean hastea lanean. Aldi baterako laneko enpresek (ABLEk) beste enpresa batzuetan jarduteko egiten dituzten kontratu ugariak langileak kontratupean lan egindako enpresatzat joko dira.
- Aseguratua epaiketa batean lekuko edo epaimahaikide izendatzea.

Era berean, bidaia-erreserba berean izena emana duen laguntzaile aseguru batek bidaia bertan behera uztearen gastuak ere daude sartuta berme honetan, baldin eta laguntzaile horrek bidaiara bakarrik joan behar badu, Aseguratuak bermean jasotako arrazoien ondorioz bidaia bertan behera utzi behar izan duelako.

Era berean, bidaia-erreserba berean aseguratuta eta izena emanda dauden adingabeen bidaia bertan behera uztearen gastuak ere daude sartuta berme honetan, baldin eta bermean jasotako arrazoi baten ondorioz helduetako batek bidaia bertan behera utzi behar badu.

Bermearen kalte-ordaina eskatzeko, Aseguratuak honako agiri hauek aurkeztu behar ditu:

- 1. Ezbeharrak gertatu dela egiaztatzeako agiria (sendagilearen txostena edo heriotza-egiaztagiria, suhiltzaileen txostena, polizaren aurrean jarritako salaketa, aseguru-konpainiaren txostena...). Agiri horretan gertaeraren (ospitaleratzearen, heriotzaren, ezbeharraren...) eguna agertu beharko da.**
- 2. Hornitzaileari bidaia ordaindu izanaren ordainagiriaren edo erreziboaren kopia eta hornitzaileak emandako bidaia-bonuaren kopia.**

3. Ezeztatze-gastuak ordaindu izana egiaztatzeko, jatorrizko ordainagiria edo errezihoa.

Ezinbestekoa da aipatu berri den dokumentazioan bidaia bertan behera uzteak eragindako gastuak justifikatuta egotea.

28. Oporraldiak eten behar izatea.

Ondoren zerrendatutako arrazoi egiaztatu baten ondorioz Aseguratuak bidaia eten egin behar izan badu, **aldi baterako bizilekuan erabili ez diren egunei dagozkien gastuak ordainduko ditu EUROP ASSISTANCEk, kontratatutako modalitatean aseguratu guztientzat zehaztutako mugen baitan.**

- Aseguratu hiltzea.
- Aseguratuak gorputz-istripua edo gaixotasun larria jasatea, ondorioz gau batez gutxienez ospitaleratu behar izatea eta, osasun-arrazoiak tarteko, bidaian jarraitzeko aukerarik ez izatea.
- Aseguratuaren senide zuzenen bat, polizan estalita dagoena, ospitaleratzea edo hiltzea.
- Aseguratuaren bizileku nagusian edo lokal profesionalean (Aseguratuak lanbide liberala badu edo enpresa zuzentzen badu) kalte larriak gertatzea suteagatik, leherketagatik, lapurretatik edo naturaren indarragatik eta ondorioz ezinbestez bertaratu behar izatea.
- Aseguratu lanetik kaleratzea, diziplina-kontuengatik izan gabe, edota etxebizitza aldatzea eskatzen dion nahitaezko lan-aldaketa izatea.
- Aseguratu aurreko sei hilabeteetan kontratatuta egon ez den enpresa berri batean hastea lanean. Aldi baterako laneko enpresek (ABLEk) beste enpresa batzuetan jarduteko egiten dituzten kontratu ugariak langileak kontratupean lan egindako enpresatzat joko dira.
- Aseguratu epaiketa batean lekuko edo epaimahaikide izendatzea.

Aseguratuak egonaldirako ostatua kontratatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, dirua itzultzeko.

29. Ohiko etxebizitzan lapurreta edo sutea egon bada, etxebizitza zaindu eta babestea.

Lapurreta, sute, uholde edo leherketa baten ondorioz Aseguratuaren ohiko etxebizitzan kanpotik erraz sartzeko aukera egonez gero, **EUROP ASSISTANCEk** segurtasun-langileak bidaliko ditu bere kargura ezbeharra konpontzen den arte, eta 24 orduz gehienez.

30. Datuak berreskuratzeko zerbitzua.

Poliza honen helburu den bidaian zehar, Aseguratuak informazioa biltegitratzeko erabiltzen dituen euskarrietan dauden edukiak berreskuratzeko zerbitzua jarriko du **EUROP ASSISTANCEk** haren esku, baldin eta ezbehar baten ondorioz euskarrietako informazioa galdu edo narriatuko balitz.

Honako ekipamendu hauek estaliko dira soil-soilik:

- ⇒ Argazki-kamera digitala
- ⇒ Bideo-kamera digitala

Datuak berreskuratu ahal izateko, bi baldintza bete behar dira: batetik, softwareko akatsa, istripua, sutea, lapurreta, giza hutsegitea, akats mekanikoa edo hondamendi naturala izatea sorburua; bestetik, kaltea Aseguratuaren bidaian zehar gertatzea.

Ezbeharrik jasanez gero, Aseguratuak horren berri emango dio **EUROP ASSISTANCE**ri Baldintza Partikularretan ageri den telefono-zenbakira deituz. Bertan emango dizkiote euskarria desmuntatzeko eta bidaltzeko argibideak.

Aseguratu bidaian dagoen bitartean edo bidaia amaitu eta hurrengo zazpi egunetan eman behar da horren berri. Epe horretan jakinarazten ez bada, zalantzarik gabe frogatu beharko da ezbeharra poliza honek aseguratutako bidaian gertatu dela.

Kaltetutako gailua ezinbestean eskuratu beharko denez, Aseguratuaren Espainiako bizilekutik datuak berreskuratzeko lana egingo duen laborategirainoko garraioa ezarriko du **EUROP ASSISTANCE**k. Kaltetutako gailua diagnostikatu eta, ahal bada, datuak berreskuratu ondoren, laborategitik Aseguratuaren Espainiako bizilekura eramango dira euskarria eta berreskuratutako informazioa.

Kaltetutako euskarria katalogotik kanpo balego, edo berriz ezin erabiltzeko moduan, disko gogor edo dvd berri bat emango zaio.

Aseguratuak zerbitzu horren prestazioa Espainiatik kanpora eskatuko balu, beraren esku geldituko dira euskarria bidaltzeko eta ondoren itzultzeko gastuak.

Datuak berreskuratzeko zerbitzuaren prestazioak muga dauka: Aseguratu eta bidaiari bakoitzeko ezbehar bakarra eta gailu bakarra. Kontratututako modalitatearen arabera izango da, berriz, prestazioaren muga ekonomikoa.

31. Premiazko mezuak helaraztea (bermeen ondoriozkoak).

Aseguratuak poliza honen bidez estalitako berme baten ondorioz premiazko mezu bat helarazi behar badute, eta horretarako bitartekorik ez badute, **EUROP ASSISTANCE**k onartu eta helarazi egingo ditu, egunean 24 orduko zerbitzu baten bidez.

32. Erantzukizun zibila.

Polizak estalitako bidaiari zehar kontratuaz kanpoko erantzukizunen batengatik Aseguratuari erantzukizun zibilen bat galdagarri bazaio dagokion herrialdean indarrean dagoen legeriari jarraikiz, aseguratzaileak bere kargu hartuko du, **kontratututako modalitateari dagokion mugen baitan.**

Estaldua horretatik kanpo dago, berariaz, erantzukizun zibil profesionala, ibilgailuak erabili eta ibiltzearen ondoriozkoa, edozein motatako gailuak eta armak edukitzeagatik edo erabiltzeagatik sor daitekeena, bai eta kalte pertsonal edo material batetik ez datozen kalte ekonomikoaren ondoriozkoa ere.

33. Istripu-asegurua.

Kontratututako aldian istripua izan duelako Aseguratu hila edo baliaezintasun iraunkor absolutua badu, **EUROPE ASSISTANCE**k **kontratututako modalitatearen mugarainoko kalte-ordaina** bermatuko du.

Aseguruaren xedea.

Aseguratuak adierazi duen jardun profesionala egitean eta izaera profesionala ez duten eguneroko jardunetan jasan litzakeen istripuetarako balio du aseguruak.

1. Honako hauek hartzen ditu barne:
 - a) Lurreko edo uretako garraio bide normalak (urpekoak kanpo gelditzen baitira) erabiltzean sor litezkeen istripuak.
 - b) Bidaiariaren garraio komertzialerako lege baimendutako hegazkin batean, Aseguratuak **bidaiari gisa** jasan litzakeen istripuak.
 - c) Ziklomotorrak gidatzean, sidekarrak duten edo ez duten motozikletak, auto partikularrak edo guztira, karga baliagarria zenbatuta, 3.500 kg baino pisu txikiagoa duten furgoneta edo kamioiak, nekazaritzako makinak edo aisialdiko ontziak erabili edo gidatzean sor litezkeen istripuak.
Gidatzearen arriskua kontuan hartzeko, ezinbestekoa da Aseguratuak kasuan-kasuan dagokion gidabaimena izatea.
 - d) Lasterketetan edo lehiaketetan eta beraien proba eta entrenamenduetan jasandako istripuak, baldin eta honelakoak badira: erregulartasuneko auto-lasterketa ofizialak, oinezko lasterketak, petanka-lehiaketak, golf-txapelketak, birika hutsez eta arnagailurik gabe egindako urpeko arrantza, tiro-lehiaketak, esgrima- edo tenis-lehiaketak, enpresa- edo enpresa arteko lehiaketak, eta aisiako lehiaketa guztiak.

- e) Erasoen edo bidezko defentsako ekintzen ondoriozko istripuak edota **Aseguratuak partaidetza aktiborik izan ez duen** herri-istiluen ondoriozkoak.
- f) Giza elkartasunari lotutako ekintzen ondoriozko istripuak, zurgabekeria edo zabarkeria larriaren ondoriozkoak, bai eta lipotimia-egoeran edo konorterik gabe gertatutakoak, **betiere ez badira mozkortuta egoteagatik, lasaigarri edo estimulatzaile gehiegi hartzeagatik, substantzia estupefazianteak edo haluzinogenoak hartzeagatik, kardiopatiengatik edo buruko isuriengatik sortutakoak.**

Ondorio horietarako, pertsona mozkortuta dagoela joko da odoleko alkohol-tasa milako 0,8 gramotik gorakoa bada, edota Aseguratua horregatik zigortu edo kondenatu badute.

- g) Tximista erortzea, intsolazioak edo Aseguratuak beroaren zein hotzaren menpe denbora luzez egon behar izatearen ondorioz jasandako kalteak, polizaren arabera kalte-ordainetarako eskubidea ematen duen istripu batek eragindakoak.
- h) Gasak eta lurrinak bat-batean isurtzearen ondorioz itotzea eta ausaz irentsitako substantzien ondorioak. **Dena dela, berariaz kanpo gelditzen dira produktu alkoholdun, lasaigarri edo estimulatzaile gehiegi kontsumitzeagatik edota substantzia estupefazianteak edo haluzinogenoak kontsumitzeagatik sor litezkeen intoxikazioak.**
- i) Uretan itotzea.
- j) Animalien haginkaden eta intsektuen ziztaden ondoriozko guztiak, **malaria izan ezik.**
- k) Aseguratuak bat-batean egindako neurritz kanpoko ahaleginaren ondorioz jasan litzakeen zuntz-etendurak, bai eta bat-bateko arrazoi bortitz baten ondorioz sortutako hernia abdominalak ere.

Baina betiere:

1. **Hernian, aldebikoan barne, ebakuntza egiteko aukera badago, Aseguratuak Aseguratzailerekin hitzartu duen kalte-ordaina baizik ez du jasoko aldi baterako baliaezintasuna badu, eta soilik hogeita hamar eguneko epean.**
 2. **Sendagilearen esanetan hernian, aldebikoan barne, ezin bada ebakuntzarik egin, Aseguratuak baliaezintasun iraunkorreko kalte-ordaina jasoko du (aseguruan erabateko baliaezintasun iraunkorragatik hitzartu den kapitalaren ehuneko hamar baino gutxiago) eta ez da inolako kalte-ordainik ordainduko herniaren ondorioz Aseguratua hilko balitz.**
- l) Soldadutza egiten den bitartean gertatzen diren istripuak (paraxutismoa izan ezik eta edozein motatako aire-ibilgailuak erabiltzen direnean izan ezik) edo ordezkotako prestazio zibila egiten den bitartean gertatzen diren istripuak, betiere bake-garaian. **Ez dira estalduran sartuko, ordea, maniobretan, mantentze-lanetan eta ordena publikoa berrezartzen den bitartean gertaturiko istripuak.**

2. Asegurutik kanpo daude:

- a) 1.1.a), 1.1.b) eta 1.2.c) bermeetan sartuta ez dauden lokomozio-baliabideak gidatzeagatik eta erabiltzeagatik datozen istripuak.
- b) Boxeoa, halterofilia, borroka-modalitate guztiak, arte martzialak oro har, harrizko hormetan edo glaziarretan eskalatzea dakarren alpinismoa, leraz irristatzea, arnasteko gailuez egindako urpekaritza, espeleologia eta aireko kirolak oro har.
- c) 1.1.d) bermean jasota ez dauden lasterketetan edo lehiaketetan eta beraien proba eta entrenamenduetan jasandako istripuak.
- d) Mozkortuta edo zorotasun-egoeran jasandako istripuak eta norberaren delituzko ekintzen ondorioz jasandakoak.
- e) Herniak eta esfortzuak oro har —1.1.k) artikuluan azaldutakoak izan ezik— eta ebakuntza edo tratamendu medikoen ondorioak, istripu batek eragindakoak ez direnak.

- f) Gerren, ekintza terroristen, matxinaden, altxamenduen edo herri-istiluetako partaidetzaren ondoriozko istripuak, bake-garaian indar armatuen edo segurtasun-erakundeen jardunaren ondorioz gertatutakoak, uholdeek, sumendi-erupzioek, ezohiko ekaitz ziklonikoek edo gorputz sideral zein aerolitoen erorketek sortutakoak, eta eragin termiko eta atmosferikoen ondoriozkoak, 1.1.g) artikuluan jasotakoak izan ezik.
- g) Atomo-nukleoen transmutazioak eta partikula atomikoak artifizialki azeleratzeak eragindako erradiazioen ondorioak.

Aseguratu ezin diren pertsonak

Ezin izango da heriotza jasotzen duen istripu-asegururik egin 14 urtetik beherako pertsonentzat edo ezinduentzat.

Istripu-asegurua baliagarria izateko gehieneko adina 70 urtekoa da. Adin-muga horretara iristen diren pertsonen dagokienez, urteko prima hurrengoan mugaeguneratzen denean automatikoki baliogabetuko da aseguruak. Adin hori bete ondoren mugaeguneratutako prima kobratu arren, aseguruak ez du baliorik izango. Halakoetan, prima itzuli egingo da.

Apoplexia, epilepsia, paralisia, buruko gaixotasuna, delirium tremensa, alkoholismoa, toxikomania, diabetesa (hurrengo paragrafoan zehaztutakoa izan ezik) eta bestelako gaixotasun larri edo iraunkorra duten pertsonak ezin izango dira aseguruan sartu. Gaixotasun horiek agertzen direnean aseguru baliogabetu egingo da eta Aseguratzailak aseguru-hartzaileari itzuliko dio istripu-aseguruaren urteko priman erabili gabe dagoen denborari dagokion zatia.

Diabetes melitusa duten pertsonentzat bermea baliagarria izango da, baina baldintza bikoitza bete behar dute, nahitaez:

- Odoleko glukosa-tasak dezilitroko 200 mg baino txikiagoa izan behar du.
- Diabetesa ez zaio antzeman behar poliza kontratatu baino lehenago.

Akats fisiko edo mutilazio garrantzitsuak dituzten pertsonak hitzarmen bereziaren bitartez soilik aseguratu dira.

Lurralde-mugak

Istripu-aseguruak munduko leku guztietarako balio du, aldi baterako baliaezintasunerako eta ospitaleratzeagatik eguneko kalte-ordainetarako izan ezik. Bi berme horiei dagokienez, Europarako, Afrikako Mediterraneoko estatueterako eta Asiako Mediterraneoko eta Itsaso Beltzeko estatueterako soilik balio izango du.

Istripuagatiko heriotza.

Istripua izan **eta, haren ondorioz, Aseguratu urtebeteko epean hiltzen bada**, Aseguratzailak aseguraturako heriotza-kapitala ordainduko die izendatutako onuradunei; inor izendatuta ez badago, berriz, Aseguratuaren jaraunslerei ordainduko die.

Dena dela, Aseguratu istripua izan den egunetik urtebete igaro eta gero hiltzen bada ere, Aseguratzailak aseguraturako kapitala ordaintzeko aukera egongo da, **baldin eta Onuradunak heriotza istripuaren ondorioa dela frogatzen badu**.

Istripuaren ondoriozko baliaezintasun iraunkor absolutua (baremoaren % 100).

Aseguratuaren poliza alta eman ondoren gertaturiko istripu batean jasandako zaurien ondorioz, istripua izan eta urtebeteko epean Aseguratuari baliaezintasun iraunkorra egokitzen bazaio, aseguru-konpainiak aseguraturako kapitalaren % 100 bermatuko du, dementzia etorri edo arrazoimena guztiz galduz gero, bi hanken edo bi eskuen galera anatomikoa edo ezintasun funtzionala gertatuz gero, goiko bi gorputz-adarren edota beheko bi gorputz-adarren (edota aldi berean goiko gorputz adar baten eta beheko gorputz-adar baten) erabateko paralisi itzulezina gertatuz gero, erabat itsutuz gero, edo begi baten ikusmena erabat galduz gero.

34. Fondoak aurreratzea.

Aseguratuak txartelak galtzen baditu edo lapurtu egiten badizkiote, **EUROPE ASSISTANCEk kontratatutako modalitatearen mugarainoko zenbatekoa** aurreratuko dio. **EUROP ASSISTANCEk Aseguratuari abala edo bermea eskatuko dio, aurreratutako dirua itzuliko diola ziurtatzeko.** Dena den, Aseguratuak gehienez ere 30 eguneko epean itzuli beharko du **EUROP ASSISTANCEk aurreratutako dirua.**

35. Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea.

Aseguratu atzerrian gertatutako auto-istripu baten ondorioz atxilotu edo auzipetzen badute, **EUROP ASSISTANCEk** lekuan lekuko agintariek eskatutako fidantza penalaren zenbatekoa aurreratuko dio, **kontratutako modalitatearen mugaren baitan.** **EUROP ASSISTANCEk eskubidea izango du Aseguratuari abala edo bermea eskatzeko, aurreratutako dirua itzuliko diola ziurtatzeko.** Dena den, Aseguratuak gehienez ere 30 eguneko epean itzuli beharko du **EUROP ASSISTANCEk aurreratutako dirua.**

36. Atzerriko laguntza juridikoetan sortutako gastuak ordaintzea.

«Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea» bermea gauzatzeko, **EUROP ASSISTANCEk kontratatutako modalitatearen mugarainoko zenbatekoa** ordainduko du, auto-istripuen ondoriozko laguntza juridikoan aritu diren atzerriko abokatuaren eta prokuradorearen lana ordaintzeko. Berme hori autoaren aseguru-polizan estalita badago, aurrerakintzat hartuko da, eta «Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea» bermean adierazitako baldintza berberak izango ditu.

37. Erreklamazio Zerbitzua.

EUROP ASSISTANCEk informazio-zerbitzua jarriko du Aseguratu guztien esku, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan, era guztietako turismo-kontuei, formalitate administratiboari, osasun-informazioari, bidaiari baldintzei eta helmugako bizimoduari, garraio bideei, ostatuei, jatetxeei eta abarri buruzko informazioa emateko, bai eta ibilgailuari lotutako informazioa emateko ere: tailerrak, gasolindegia, aseguru-konpainiak...

38. Lege-informaziorako zerbitzua.

Aseguratuak dagoen lekuan buruzko lege-informazioa behar badu, **EUROP ASSISTANCEk** honako hau eskainiko dio:

- Abokatuen eta lege-adituen izena, helbidea eta telefonoa.
- Hizkuntza nagusietako interprete-zerbitzuaren eta telefono bidezko itzulpen-zerbitzuaren berri.
- Enbaxada eta kontsulatuari buruzko informazioa.

ESKLUSIOAK

Modalitate bakoitzean zehaztutako bermeak bertan behera geldituko dira Aseguratu ohiko bizilekura itzultutakoan edota **EUROP ASSISTANCEk** ohiko bizilekura edo handik hurbil dagoen ospitale batera aberriratutakoan. Bermetik kanpo daude, oro har, aurretiaz **EUROP ASSISTANCE**ri jakinarazi ez zaizkion gastu guztiak eta Aseguratuak gauzatzeko baimenik jaso ez duen gastu guztiak.

Aseguratuak indarrean duen pasaportean ageri den estatura bidaiatzen duenean, Espainian egindako bidaiari baterako polizan deskribatutako berme berdina jasoko ditu.

Aberriratzeko ondorioetarako, aseguru-polizan ageri dena joko da ohiko bizilekutzat.

Dena dela, aseguru-bermeetatik kanpo gelditzen dira (bermean berriaz agertu ezean) zenbait gorabeherak eragindako kalteak, egoerak, gastuak eta ondorioak. Honako hauek, hain zuzen:

1. Aseguratuak bidaiara abiatu aurretik zituen edo kronikoak diren gaixotasunak, lesioak edo afekzioak, bidaiari azaleratu direnak, salbu eta gaixotasun, lesio edo afekzio horri EUROP ASSISTANCEk lehenago ere (unean uneko aseguru-urtean zehar) erantzun badio.
 2. Aseguratuak EUROP ASSISTANCEk proposaturiko eta konpainiaren osasun-zerbitzuak onartutako lekualdatzeari uko egiten badio edota aurreratu edo atzeratu egiten badu.
 3. Buruko gaixotasunak, prebentziozko osasun-azterketak, sendaketa termala, kirurgia estetikoak eta hartutako immunoeskasiaren sindromea. Osasun-tratamendua, ebakuntza kirurgikoa edota medikuntza alternatiboetako (homeopatiako, medikuntza naturistako...) tratamendua egiteko bidaiak. Tratamendu fisioterapeutikoen, errehabilitatzaileen eta parekoen ondoriozko gastuak. Era berean, bermetik kanpo geldituko dira haurdunaldiaren diagnostikoa, jarraipena eta tratamendua, haurdunaldia borondatez etetea eta erditzea bera, salbu eta premiazkoa bada eta betiere haurdunaldiko 150 egun bete baino lehenago egiten bada.
 4. Aseguratuak apustuetan, erronketan edo liskarretan parte hartzea.
 5. Neguko kirolak egiteagatik sortutakoak, *Miss You* modalitatea harpidetu ez bada.
 6. Lehia-kirolak edo Motordun lehiaketetan (lasterketa edo rallyetan) parte hartzea edota ondoren zerrendatuko diren jarduera arriskutsuak egitea:
 - ⇒ Boxeoa, halterofilia, borroka-modalitate guztiak, arte martzialak, glaziarretan ibiltzea dakarren alpinismoa, leraz irristatzea, arnasteko gailuez egindako urpekaritza, espeleologia eta eski-jauziak (trapolinak).
 - ⇒ Aireko kirolak oro har.
 - ⇒ Abenturako kirolak, hala nola raftinga, puentinga, hidrospeeda, erreka-zuloetako jaitsera eta antzerakoak. Halakoetan, Aseguratuak osasun-zentro batean tratamendupean dagoen bitartean sortutako gastuak baino ez ditu ordainduko EUROP ASSISTANCEk, eta soilik egoera horretan dagoen bitartean hartuko du esku.
 7. Aseguratuak bere burua hiltzea, bere buruaz beste egiten saiatzea edo bere burua zauritzea.
 8. Pertsonak mendi, leize, itsaso edo basamortuetan erreskatatzea.
 9. Edari alkoholduak, substantzia sorgogorriak, drogak edo medikamenduak kontsumitzeagatik sortutako gaixotasunak edo istripuak. Medikamenduen kasuan, sendagileak agindutakoak badira, ez da esklusiorik ezarriko.
 10. Aseguru-hartzailearen, Aseguratuaren edo beraien kausadunen dolozko egintzak.
 11. Bat-batean agertu eta biztanleriaren artean berehala zabaltzen diren izurriteak eta gaixotasun infekziosoak, bai eta poluzioak edo aireko kutsadurak eragindako gaixotasunak ere.
 12. Gerrek, manifestazioek, matxinadek, herri-mugimendu zalapartatsuek, terrorismo-ekintzek, sabotajeek eta grebek eragindakoak, berdin dio azken horiek ofizialki deituta egon ala ez. Atomo-nukleoen eta partikula atomikoak artifizialki azeleratzeak eragindako erradiazioen transmutazioa. Lurraren mugimenduak, uholdeak, sumendien erupzioak eta oro har naturaren indarrek eragindakoak. Hedaturagatik edo larritasunagatik katastrofetzat edo hondamenditzat jotzen diren ezohiko ezbehar edo gertakari suntsitzaileak.
 13. Ez dira estalduran sartzen ebasketa, galera, dirua, bitxiak eta agiriak, ez eta ibilgailu edo kanpadendetako ekipajeen edo objektu pertsonalen lapurreta ere.
 14. «Overbookinga», «Gainerreserba dagoelako bidaia atzeratzea» bermean jasotakoa izan ezik.
 15. Berariaz salbuesten da kontratatutako bidaia ezeztatzea edo bertan behera uztea eragin duen edozein arrazoi, dagokion artikuluan estalitako bermetzat berariaz agertzen ez bada.
- Aurrekoari kalterik eragin gabe, bereziki eta berariaz bermetik kanpo geratuko dira:
1. «In situ» moldatzeko moduko afekzio edo lesioak dituzten gaixo edo zaurituen lekualdatze sanitarioa.

2. Betaurrekoen eta lentillen gastuak, eta edozein motatako protesiak, pieza anatomikoak eta ortopedikoak (hala nola lepokoa) erostea, ezartzea, ateratzea edota konpontzea.
3. 50 eurotik beherako osasun-gastuak, kirurgikoak edo farmazeutikoak.
4. *Receptivo Schengen* modalitatean, EUROP ASSISTANCEk zuzenean esku hartzen ez duenean, behin osasun-gastua onartu ondoren, kasuan kasuko zenbatekoaren % 80 baino ez du itzuliko, dagokion bermean ezarritako modalitatearen mugen baitan eta finkatutako frankizia kendu eta gero.

«Datuak berreskuratzeko zerbitzutik» kanpo geldituko dira:

1. Hardware edo fitxategi kaltetu edo hondatuak eta konfigurazioen CDak berreskuratzea.
2. EUROP ASSISTANCEri eman aurretik manipulatu diren euskarrietako informazioa berreskuratzea.